BILBOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE BILBAO | Prentsa Kabinetea Gabinete de Prensa | Erkoreka Plaza, 1 48007 Bilbao
Tel. 94 420 52 61 / 94 420 52 94 / 94 420 35 19 / 94 420 59 93 / 94 420 30 93 | Fax: 94 420 52 16 | prensa@alcaldia.bilbao.eus | www.bilbao.eus

# JUAN MARI ABURTO BILBOKO ALKATEAK "BILBO BALIOEN SARIAK" EMAN DIZKIE THE EKO LAB ELKARTEARI, SANCHEZ MARCOS IKASTETXEARI ETA BAKUVA FUNDAZIOARI

- **Sanchez Marcos ikastetxearen "Arbotante/Arbota-arkua" eta The Eko Laben "La Bobina" belaunaldi arteko ekimenak dira, hezkuntzaren eta komunitatearen eremukoak, hurrenez hurren.**
- **Sarituetako hirugarrena Bakuvaren "David" proiektua da, entitatearen eskola-laguntzako programan parte hartzen duten gazteei orientazio pertsonala, akademikoa eta soziala emateko zerbitzua.**
- **Hiru ekimenek elkarrekin sustatzen dituzte bizikidetza, berdintasuna, jasangarritasuna edo sormena bezalako balioak, denak ere Bilboren Balioen Agirikoak.**

(*Bilbo, 2023ko otsailaren 28a*).- ***Juan Mari Aburto*** Bilboko alkateak "**Bilbo Balioen Hiria Sariak"** banatu ditu. Bosgarren edizio honetan, honako hauen lana aitortzeko izan dira: **Juan Manuel Sanchez Marcos HLHI** ("***Arbotante/Arbota-arkua")***, **The Eko Lab** elkartea ("***La bobina***") eta **Bakuva** fundazioa ("***Proyecto David***").

Aburto alkateak esan duenez, "*sarituak izan diren proiektuetako bakoitzak lagundu egiten digu Bilboko Balioen Agiria sustatzen; sari horien xedea da, hain zuzen, balioak bultzatzen dituzten ideiak sustatzea eta haien alde egitea, aditurik balioak direla gizartean bizikidetza ardazteko eta gure Uria aurrerantzean ere hobetzeko tresna batzuk, eta guztiz sinetsita ekintza txiki oro, ahalegin oro eta jokabide oro dela garrantzitsua Bilbon bizi garen guztion ongizatean eta bizi-kalitatean aurrera egiteko"*. Aburtok gogorarazi duenez, "*Bilbok bere hirigintza-eraldaketagatik da ezaguna batez ere. Orain badakizue gure ahalegina dela balioen hiri gisa ere ezaguna izatea, eta helburu hori lankidetzan soilik lortuko dugu, elkarrekin lan eginez, konpromisoz eta konbentzimenduz*. *Zuek bezalako pertsonez betetako gizarte bat behar dugu, pertsona aktibo, parte-hartzaile eta kolaboratiboez betea".*

Juan Mari Aburtok azpimarratu duenez, "*Bilbok gero eta inklusiboagoa, anitzagoa, konprometituagoa, jasangarriagoa eta bidezkoagoa izan nahi badu, balioen erreferente izan behar du, garapen jasangarrirako helburuekin dugun konpromisoarekin lerrokatutako erronka"*.

## SARITUTAKO 3 PROIEKTUAK

- **THE EKO LAB**

**"La Bobina"** izeneko proiektuan **belaunaldi arteko ikasgela bat sortu da ehungintzaren inguruan; joskintzako eta artisautzako teknikak partekatzeko eta ikasteko espazio ireki bat**.

Joskintza-eskola bat sortzetik haratago, **belaunaldi eta kulturen arteko topaketarako eta elkarrizketarako leku bat eskaini nahi da, zeinetan ezagutzen, balioen eta esperientzien trukaketa eta ikaskuntza bat sortuko den, komunitatearen garapenean eta kohesioan aktiboki laguntzeko helburuz**. Era berean, kontzientziatzeko eta praktika jasangarriak, *upcycling*-a, birziklatzea eta konponketa sustatzeko gune bat da. Ideiak sustatzen dituen balioen artean, **bizikidetza, berdintasuna, jasangarritasuna eta sormena** nabarmentzen dira.

Ildo horretan, epaimahaiak aho batez baloratu ditu proiektuaren erakargarritasuna eta belaunaldi arteko izaera, elkartzeko eta elkarrengandik ikasteko gune gisa duen ikuskera, eta jasangarritasunaren aldeko apustu nabarmena, bai eta egindako tailerrek parte-hartzaileen ingurumen-kontzientzian duten eragina ere.

- **Juan Manuel Sanchez Marcos HLHI**

Sanchez Marcos ikastetxearen ekimenak "***Arbotante/Arbota-arkua***" du izena, eta bertan **ikastetxeko lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailetako** ikasleek parte hartu dute, **Francisco Javier García de la Torre arkitektoarekin** batera.

Ekimena arkitekturaren, artearen eta zientziaren inguruko **belaunaldien arteko hezkuntza-esperientzia** batean datza. Esperientzia horrek **balioa ematen die uriko eraikin historikoei, bai eta garai bateko lanbideei ere. Gainera, aukera-berdintasuna, talde-lana, sormena, jasangarritasuna, hezkidetza eta bilbotar sentimendua sustatzen ditu.**

Epaimahaiak **proposamenaren sormena eta duen motibazio-potentzialagatik bokazioak sortzeko gaitasuna nabarmendu ditu.**

- **BAKUVA fundazioa**

Bakuva fundazioa "Bilbo Balioen Hiria Sariak" sarien edizio honetako beste sarituetako bat da, **"David" proiektuaren** ekimenagatik: **Bakuvaren eskola-laguntzako programan parte hartzen duten gazteei orientazio pertsonal, akademiko eta sozialeko zerbitzu bat eskaintzea du helburu, derrigorrezko bigarren hezkuntzako hirugarren mailatik lanbide-heziketara.**

Epaimahaiak nabarmendu ditu proiektuaren irismena eta profil oso desberdinetako gazteen hezkuntzarekin eta prestakuntzarekin duen lotura.

Orientazio-zerbitzu hori eskaintzeaz gain, proiektuaren helburua da **hausnarketarako gune bat eskaintzea, prestakuntza-alderdiei buruzko informazioa ematea, gazteen eta haien familien eskaerei erantzutea, eta nork bere burua ezagutzen laguntzea, besteak beste. Horretarako, konfiantzazko giroa sortzen dute.**

Saritutako entitate bakoitzak 3.300 euro jasoko ditu, deialdiaren xedearekin lotutako helburuetarako.

## 43 EKIMEN AURKEZTU DIRA

**“Bilbo Balioen Hiria Sarien”** bosgarren edizio honetan, **43 proiektu aurkeztu dira**, hiru kategoriatan banatuak:

- Bilbon **irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitateek garatutako 29 ekimen** (aurreko edizioan baino 7 gehiago).
- **Hiriko ikastetxeek** garatutako **13** ideia (aurreko edizioan baino 4 gehiago).
- Bilbon dauden **enpresek, saltokiek, ostalaritzak, lanbide-elkargoek edo antzeko entitateek** garatutako proiektu 1 (aurreko edizioko kopuru bera).

## BILBO, BALIOEN HIRIA

“**Balioen Hiria Sariak**" Bilbo Balioen Hiria proiektuaren barruan datoz. Parte hartze bidezko ekimen bat da, Bilboko Udalak sustatua, baina, hasiera-hasieratik, herritarren elkarlanarekin eraikia eta garatua. Bilbo Balioen Hiria proiektuaren helburua da uria ezaguna eta aitortua izatea, ez bakarrik birgaikuntza, berreskuratze eta eraldaketa ekonomikoagatik, baita beraren balioengatik ere. Helburua da gune bat sortzea, erakundeen, era guztietako entitateen, enpresen, hedabideen, talde politikoen eta herritarren artean analisia egiteko, hitz egiteko, hausnartzeko eta lankidetzarako.

Horren emaitza gisa, 2018ko martxoan Bilbo Balioen Agiria onartu zuen Udalbatzarrak, non datozen urteetan uria eta bilbotarren elkarbizitza egituratu behar duten 17 balioak identifikatu baitziren.

**Balioen Agiriari atxiki** nahi zaizkion pertsona edo erakunde guztiek nahikoa dute Udalaren webgunean edo Bilbo Balioen Hiriaren webgunean eskura daitekeen inprimaki erraz bat betetzea.

## SARE SOZIALAK:

- **Bilboko Udala:** YOUTUBE | FACEBOOK | TWITTER | INSTAGRAM

# EL ALCALDE DE BILBAO JUAN MARI ABURTO ENTREGA LOS PREMIOS *BILBAO BALIOEN SARIAK* A LA ASOCIACIÓN THE EKO LAB, AL CENTRO ESCOLAR SANCHEZ MARCOS Y A LA FUNDACIÓN BAKUVA

- **“Arbotante/Arbota-arkua” del centro escolar Sanchez Marcos y “La Bobina” de The Eko Lab son iniciativas intergeneracionales en el ámbito educativo y de comunidad, respectivamente.**
- **El tercero de los premiados es “Proyecto David” de Bakuva, un servicio de orientación personal, académica y social a las y los jóvenes que participan en el programa de apoyo escolar de la entidad.**
- **Las tres iniciativas tienen en común el fomento de valores como la convivencia, la igualdad, la sostenibilidad o la creatividad, incluidos en la** Carta de Valores de Bilbao.

(*Bilbao, 28 de febrero de 2023*).- El Alcalde de Bilbao, ***Juan Mari Aburto***, ha entregado los premios **Bilbao Balioen Hiria Sariak**, que en esta su quinta edición reconocen el trabajo desarrollado por el **CEIP Juan Manuel Sanchez Marcos HLHI** con su proyecto ***Arbotante/Arbota-arkua***, la asociación **The Eko Lab** por su idea “***La bobina***” y la **Fundación Bakuva** por su iniciativa “***Proyecto David***”.

El Alcalde Aburto ha recordado que “*cada uno de los proyectos premiados nos ayuda a fomentar la Carta de Valores de Bilbao, es el objetivo de estos premios incentivar y apoyar aquellas ideas que impulsan los valores como herramienta para vertebrar la convivencia de la sociedad, para contribuir a seguir mejorando la Villa desde la convicción de que cada pequeño gesto, esfuerzo y actitud cuenta para avanzar en bienestar y calidad de vida de las y los ciudadanos de la Villa”.* Aburto ha recordado que “*Bilbao es reconocida por su transformación urbanística, ahora sabéis que nuestro empeño es que nos reconozcan también como Ciudad de Valores, y ese es un objetivo que solo conseguiremos colaborando, trabajando de manera conjunta con compromiso y convicción*. *Necesitamos una sociedad llena de personas como vosotros y vosotras, activas, participativas y colaborativas*”

Juan Mari Aburto ha finalizado subrayando que “*Bilbao es una ciudad que aspira a ser cada vez más inclusiva, más diversa, más comprometida, sostenible y justa, ha de ser referente de valores, un reto alineado con nuestro compromiso con los Objetivos de Desarrollo Sostenible*”.

## 3 PROYECTOS PREMIADOS

- **THE EKO LAB**

Bajo el nombre de “**La Bobina**”, este proyecto se basa en la **creación de un aula intergeneracional en torno al mundo textil**, un espacio abierto donde **compartir y aprender técnicas de costura y artesanía**.

Más allá de crear una escuela de costura, se pretende propiciar un **lugar de encuentro y diálogo entre generaciones y culturas, donde se genere un intercambio y aprendizaje mutuo de conocimientos, valores y experiencias con la finalidad de contribuir activamente a la cohesión y desarrollo comunitario**. Así mismo, se trata de un espacio de concienciación y fomento de las prácticas sostenibles, el *upcycling*, el reciclaje y la reparación. Entre los valores que promueve la idea destacan la **convivencia, la igualdad, la sostenibilidad o la creatividad**.

En este sentido, el Jurado ha valorado unánimemente el atractivo del proyecto y su carácter intergeneracional, su concepción como un espacio de encuentro y aprendizaje mutuo y su marcada apuesta por la sostenibilidad, así como el impacto que los talleres celebrados generan en la conciencia medioambiental de las personas participantes.

- **C.E.I.P. Juan Manuel Sanchez Marcos HLHI**

La iniciativa del centro escolar Sanchez Marcos se denomina “***Arbotante/Arbota-arkua***” y en ella han participado las y los alumnos de 3º **y 4º de primaria del centro**, en colaboración con el **arquitecto Francisco Javier García de la Torre.**

La iniciativa consiste en una **experiencia educativa intergeneracional** en torno a la arquitectura, el arte y la ciencia que pone en **valor los edificios históricos de la Villa y también los oficios de antaño** y promueve la **igualdad de oportunidades**, el **trabajo en equipo**, la **creatividad**, la **sostenibilidad**, la **coeducación**, el **sentimiento de pertenencia a Bilbao.**

El jurado ha destacado la **creatividad de la propuesta y su capacidad de despertar vocaciones por su elevado potencial motivador**.

- **Fundación BAKUVA**

La Fundación Bakuva es otra de las premiadas en esta edición de los premios Bilbao Balioen Hiria Sariak por su iniciativa “**Proyecto David**”, que se basa en ofrecer un servicio de **orientación personal, académica y social a las y los jóvenes que participan en el programa de apoyo escolar de BAKUVA desde tercero de educación secundaria obligatoria hasta la formación profesional.**

El jurado ha destacado el alcance del proyecto y su vinculación con la educación y formación de jóvenes de perfiles muy diversos.

Además de ofrecer este servicio de orientación, el proyecto busca **facilitar un espacio de reflexión, proporcionar información sobre aspectos formativos, responder a las**

**demandas de los/as jóvenes y sus familias y favorecer el autoconocimiento, entre otros, para lo que generan un ambiente de confianza.**

Cada uno de las entidades premiadas recibirá una dotación de 3.300 euros que deberán estar destinados a fines vinculados con el objeto de la convocatoria.

**43 INICIATIVAS PRESENTADAS**

En esta quinta edición del certamen "**Bilbao Balioen Hiria Sariak**" se han **presentado 43 proyectos** repartidos en tres categorías:

- **29** iniciativas desarrolladas en Bilbao por **asociaciones y entidades sin ánimo de lucro** (7 más que en la edición anterior).
- **13** ideas desarrolladas por **centros escolares de la Villa** (4 más que en la edición anterior).
- 1 proyecto desarrollado por **empresas, comercios, hostelería, colegios profesionales u otras entidades análogas** que estén ubicadas en Bilbao (mismo número que en la edición anterior).

**BILBAO BALIOEN HIRIA**

Los premios **"Bilbao Balioen Hiria Sariak**" se enmarcan en el proyecto Bilbao Balioen Hiria, una iniciativa participativa, impulsada por el Ayuntamiento de Bilbao, pero construida y desarrollada, desde un principio, en colaboración de la ciudadanía. Bilbao Balioen Hiria tiene como objetivo que la Villa sea conocida y reconocida no solo por su importante proceso de regeneración, recuperación y transformación económica y urbana, sino también por sus valores. Se trata de crear un espacio de análisis, dialogo, reflexión y trabajo colaborativo entre instituciones, entidades de toda índole, empresas, medios de comunicación, grupos políticos y ciudadanía en general.

Como resultado de este proyecto en marzo de 2018 el Pleno del Ayuntamiento aprobó la Carta de Valores de Bilbao en la que se identifican los 17 valores que deben vertebrar la convivencia de la ciudadanía bilbaina y que deben guiar de la Villa en los próximos años.

Toda persona o entidad que lo desee puede **adherirse a la Carta de Valores** rellenando un sencillo formulario online disponible tanto en la página web del Consistorio como en la de Bilbao Balioen Hiria.

**REDES SOCIALES:**

- **Bilbao Udala:** YOUTUBE | FACEBOOK | TWITTER | INSTAGRAM